

Ceremonia de investidura de Luis Rojas Marcos como doctor *honoris causa* por la UPV/EHU: intervención del rector Iñaki Goirizelaia

Beste behin ere bildu gara unibertsitatearentzat horren esangura handia duen ekitaldi honetan: *Honoris Causa* doktore bat izendatzeko ekitaldia.

Egun, Luis Rojas Marcos irakaslea inbestitu dugu. *Honoris Causa* doktore bat izendatzen dugunean egin diezaiokegun aitortza akademikorik gorena egiten diogu pertsona bati; horixe da ekitaldi honen helburu eta arrazoi nagusia.

Esan beharra dago pozgarria dela Euskal Herriko Unibertsitatearentzat bere klaustroan hain maila altuko ikertzaile bat izatea, Luis Rojas Marcos irakaslea psikiatriaren alorrean nazioarteko aditurik garrantzitsuenetakoa dugu eta.

José Guimón aitabitxi jaunak azaldu duen bezala, gure doktore berriaren merituak laudatio-an nabarmenduz, Luis Rojas Marcos irakasleak psikiatrian egin ditu bere zientzia ekarpenak. Beraz, ni ez naiz arituko merezimendu horien deskribapen zehatzean. Baizik eta gogoeta labur bat gure klaustrokide berriaren nortasuna eta idazlanen ildotik.

Son muchas las perspectivas desde las que un rector puede enfocar su intervención en la investidura de un doctor o una doctora *Honoris Causa*.

Pero para el rector de la Universidad del País Vasco, y ante una figura como la que representa, en esta institución, Luis Rojas Marcos, hay una perspectiva que me gustaría subrayar: la del reencuentro.

La larga trayectoria intelectual, académica, investigadora y profesional del profesor Rojas Marcos tiene, entre sus hitos fundacionales, el doctorado que obtuvo en la Universidad de Bilbao, un lejano día del año 1975.

Ahora, casi cuarenta años después, y aparte de otras relaciones de orden académico o personal, la universidad vasca y Luis Rojas Marcos vuelven a encontrarse; y lo hacen en

una ceremonia de la trascendencia académica y científica que representa la investidura como doctor.

El hecho se produce tras un largo y dilatado recorrido profesional y humano, un viaje personal e intelectual en el que se acumulan actividades diversas pero siempre ejecutadas con brillantez: la docencia, la práctica profesional, la gestión pública, la investigación y la escritura.

Bere ikerketa-jardueraren hastapenean, Rojas Marcos irakasleak lan-esparru berri bat ireki zuen: hizkuntzaren mugak izan ditzakeen ondorioak, ingelesez adierazteko zailtasunak dituzten eta buruko gaitz bat duten etorkinengan.

Gai horri buruz egin zituen ikerketak aitzindariak izan ziren, eta aldizkari zientifiko onenetan argitaratu zituzten. Horien ondoren, Iparramerikako gizarte-talde ahulenen gaineko beste ikerketa eta lan batzuk ere egin zituen.

Rojas Marcos irakasleak gizartearekiko erakutsi zuen sentsibilitate hura maiz islatu da gero New York estatuko osasun zerbitzuen kudeatzaile gisa egindako lanean.

Jose Guimón irakasleak aipatu ditu dagoeneko osasun arloan gure doktore berriak bete dituen ardura guztiak, baita horien garrantzia ere. Nik, ordea, Rojas Marcos irakasleak zerbitzu publikoaren alde izandako bokazioa azpimarratu nahi nuke; izan ere, haren bizitza profesional osoa hartu du bokazio horrek eta hemen gaudenetako askok erabat partekatzen dugu.

Zailtasun ekonomikoen garai honetan, are garrantzitsuagoa da nabarmentzea zerbitzu publikoa zer den eta zer funtzio betetzen duen. Izan ere, gauzek okerrera egiten dutenean defendatu behar da ongi egin daitekeen eta ongi egin behar den hori. Horren harira, hezkuntzarako sarbidea eta osasunerako sarbidea bermatzea giltzarria da egiazko gizarte demokratiko eta garatu batean.

Hori dela eta, osasun sistema publikoari bere bizitzaren hainbeste urte eskaini dizkion Rojas Marcos irakaslearen inbestidura erreferente ona dela uste dut. Horrez gain, ikur bihurtzen du nola edo hala. Bikaintasuna kaltetuenen zerbitzura jar daitekeela erakusten duen ikurra, hain zuzen ere.

Por último, de la personalidad y la obra del profesor Rojas Marcos quería destacar otras dos vertientes de singular interés.

Por una parte, su experiencia, dramática y cercana, del atentado contra las Torres Gemelas, que ha relatado en libro y en artículos de prensa. Su memoria del suceso es un testimonio impagable de lo ocurrido, pero también es una reflexión sobre uno de los sucesos más traumáticos de la historia contemporánea.

Por otra parte, quería aludir también a su actividad divulgadora. Junto a numerosas publicaciones de carácter estrictamente científico, el profesor Rojas Marcos cuenta con una amplia bibliografía sobre cuestiones profundamente humanas, cuya lectura es accesible a un amplio colectivo social.

En esa parte de su obra reflexiona sobre la felicidad, sobre la autoestima, sobre el sentido de la vida... Lo hace, además, desde una perspectiva positiva y optimista. Me atrevería a decir, si nuestro nuevo compañero de claustro me lo permite, que defiende y difunde una verdadera "filosofía del optimismo", aplicada a la persona individual pero también a los colectivos sociales.

Hay en su obra una alusión constante al "instinto de la felicidad", que recorre la condición humana, y que debería llevarnos a una vida más plena, más positiva, a través de la búsqueda de referentes personales y de un cambio interior.

"El que pone el control de su vida fuera de sí mismo tiene más dificultades para reinventarse", asegura el profesor; y hace del hecho de reinventarse toda una filosofía de vida basada en el cambio de los comportamientos, la voluntad de transformación personal, y la promoción del altruismo y de la solidaridad.

En un tiempo como el nuestro, en que por diversas razones se extienden el pesimismo y la negatividad; en un tiempo en que a las duras condiciones económicas se les une la confrontación entre culturas, el discurso insolidario, la desconfianza o el crecimiento de tensiones entre personas y colectivos, una "filosofía del optimismo" parece más necesaria que nunca.

Para la Universidad del País Vasco, en suma, es un motivo de orgullo y de satisfacción contar en nuestro claustro con el profesor Rojas Marcos. Volviendo a mis

palabras del principio: el acto de hoy, más que un ingreso, es un reencuentro, el reencuentro con una de las figuras más destacables de la psiquiatría contemporánea y que ahora recibe de la Universidad del País Vasco un testimonio de reconocimiento y gratitud.

Eskerrik asko zuen arretagatik. Eta, berriz ere,

Eman Ta Zabal Zazue